dmddhe


DERECHO A MORIR DIGNAMENTE

DUINTASUNEZ HILTZEKO ESKUBIDEA

EUSKADI

Txostena

2025



Edukia.

1 AURKEZPENA. 1

1.1 2025. URTEAREN LABURPENA. 1

2 ELKARTEAREN JARDUERA 2025EAN. 6

2.1 EKINTZA POLITIKOA ETA INSTITUZIONALA. 6
2.2 HEZKUNTZA- ETA HEDAPEN-EKINTZA. 9
2.2.1 Hitzaldi-eztabaidak, konferentzak, solasaldiak, zineforumak, ikastaroak. 9
2.2.2 Hedabideetan agertzea (prentsan, irratian eta telebistan). 11
2.2.3 Hezkuntza-arloko jarduerak. 12
2.2.4 Lanbide-arloko jarduerak. 12
2.2.5 Heriotza Duinaren Nazioarteko Eguna. 13
2.2.6 Sare sozialetan eta *online* hedabideetan agertzea. 14
2.2.7 Idatzizko eta ikus-entzunezko erakunde-materiala prestatu eta zabaltzea. 14
2.2.8 Harremanak beste erakunde eta elkarte batzuekin. 14
2.3 ELKARTEGINTZA. 16
2.3.1 Bazkideen bilakaera. 16
2.3.2 Zuzendaritza Batzordearen osaera. 16
2.3.3 Bazkideen parte-hartzea. 17
2.3.3.1 Zuzendaritza Batzordearen bilerak eta Batzarrak. 17
2.3.3.2 Lantaldeak eta sortutako dokumentazioa. 18
2.3.3.3 Bazkideen topaketak. 20
2.3.4 Bazkideentzako prestakuntza eta informazioa banatzea. 21
2.3.5 Arreta pertsonalizatua. 22
2.3.6 2026rako aurreikusitako jarduera. 23
2.3.7 Inbentarioa. 24

3 2025EKO TXOSTEN EKONOMIKOA. 25

3.1 2025EKO BALANTZEA. 25
3.2 2026KO AURREKONTUA. 28

1 Aurkezpena.

DMD-DHE Euskadi elkartea (IFZ-G20769659) irabazi-asmorik gabeko erakundea da, eta Euskal Autonomia Erkidegoan pertsona orok bere bizitza noiz eta nola amaitu nahi duen askatasunez erabakitzeko duen eskubidea defendatzen du, bereziki atzera-bueltarik gabeko narriadura eta sufrimendu jasanezina dutenean (ikusi estatutuak).[1]

Euskal Autonomia Erkidegoko Elkarteen Erregistro Orokorrean (AS/G/09652/2002) inskribatuta dago 2002ko otsailetik, eta hiru lurralde historikoetako bazkideek osatzen dute. Halaber, estatu-mailako egitura federal baten parte da. Egitura horrek, beste talde autonomiko batzuekin batera, 1984an sortutako DMD Elkarte Federala (AFDMD) osatzen du.

Memoria honetan, Euskadin 2025ean heriotza duinaren inguruan jazotako gertaera nagusiak islatu nahi dira, baita urte horretan DMD-DHE elkarteak izandako jarduera jaso eta baloratu ere.


1.1 2025. urtearen laburpena.

2025ean, Eutanasia Arautzeko Lege Organikoa (LORE) indarrean dagoen laugarren urte naturala osatu da, 2021eko ekainaren 25ean jarri baitzen indarrean. Euskadin, gero eta gehiago aplikatu da Legea, motel bada ere, baina ez da arazo aipagarririk ikusi, aurreko urtekoez aparte:

- Herritarrek gutxi erabiltzen dute legea, beste herrialde batzuetan baino askoz ere gutxiago.
- Heriotza gehiegi gertatzen dira eutanasia-eskaera izapidetzeko prozesua amaitu aurretik.
- Aldeak daude lurraldeen eta ESIen artean.
- Zailtasunak daude laguntza eskuratzeko orduan (lehenengo eskaeraren hasiera), bereziki buruko gaixotasuna dutenei dagokienez.

Xehetasun gehiago lortzeko, eta DMD-DHE elkartearen ikuspegitik arazo horien kausen azalpen posible bat ikusteko, irakurri LOREren 4. urteurrena zela-eta Elkarteak kaleratu zuen prentsa-oharra.


Apirilaren hasieran, Euskadiko Berme eta Ebaluazio Batzordeak (EBE) Eutanasiari buruzko 2024ko Urteko Txostena aurkeztu zuen ofizialki (gaztelania, euskara). Grafiko honetan, emaitza nagusiak laburbiltzen dira:



[1] *Memoria honek Interneteko webgune eta edukietarako esteka ugari ditu. Haietako bakoitzera daraman hitz edo esaldia gorriz eta azpimarratuta ageri da, errazago identifikatzeko. Edukira sartzeko, sakatu saguaren ezkerreko botoia eta egin klik markatutako testuaren gainean.*

Oraindik ere arazoak daude, eta behin baino gehiagotan azaldu ditu DMD-DHE elkarteak, baina, haiek gorabehera, Euskadik eutanasia bidezko heriotzen urteko tasarik altuenetako bat du, heriotza guztiei dagokienez (% 0,25).

Bizitzaren amaierako prozesuan beren autonomia gauzatzeko pertsonek duten eskubidearen defentsan Elkarteak egindako beste aldarrikapenetako bat aurretiazko borondateeen dokumentua (ABD) zabaltzea eta erabiltzea izan da. 2025eko otsailaren amaieran, Osasun Sailak Euskadiko ABDen 2024ko erregistro-datuak argitaratu zituen (2025eko urtarrileko datuekin) (gaztelania, euskara). Beheko irudian, argitaratutako emaitza nagusiak ageri dira, modu grafikoan:



DMD-DHE elkarteak zailtasunak ikusi ditu, halaber, eskubide hori gauzatzeko orduan; besteak beste, hauek:

- 12 hilabete ingurura lortzen da hitzordua hiru lurraldeetako Osasuneko Lurralde Ordezkaritzetan.
- Osasun-erakundeek ABDren oso hedapen txikia eta informazio gutxi eman dute herritarren artean, eta, ondorioz, herritar askok ez dakite eskubide hori daukatenik.
- 9/2024 Dekretuak eraginkortasun txikia du; haren bitartez, ABDak borondatez emateko gaitu zituen osasun-zentro eta ospitaleetako mediku eta erizainak.

Arazo horiek gorabehera, gero eta gehiago erabiltzen da eskubide hori ABDari buruzko informazioa ematen diharduten herritarren talde eta elkarteen ekintzari esker (besteak beste, DMD-DHE). Memoria hau idatzi den datan (2026ko otsailaren amaiera), Osasun Ministerioak estatu-mailako Aurretiazko Instrukzioen Erregistro Nazionalean jasota dauden ABDei buruzko datuak argitaratu ditu, 2025ari dagozkionak. Txosten horren arabera, 2025ean, 15.548 ABD erregistratu dira Euskadin, eta, guztira, berriz, 76.000 baino gehiago; hau da, 34,17 ABD 1.000 biztanleko. Tasa hori Estatuko bigarrena da, Nafarroaren atzetik, 1.000 biztanleko 37,41 ABDko tasa baitu, eta, 2024arekin alderatuta, igoera handia dakar. Baina beste herrialdeetatik urrun dago oraindik.

2025ean, heriotza duinaren arloan, beste gertaera aipagarri batzuk ere izan ziren Euskadin:

- Otsailaren amaieran, Eusko Jaurlaritzak hitzarmen bat sinatu zuen Euskadiko Notarioen Elkargoarekin, notarioek emandako ABDak Aurretiazko Borondateen Erregistrora telematikoki bidali ahal izateko. Hedabide batzuek argitaratu zuten albistea: Diario de Noticias de Gipuzkoa, Irekia.
- Apirilean, Euskadiko EBEk, Bizkaiko Medikuen Elkargoarekin (BME) lankidetzan, “Euskadiko Eutanasiari buruzko I. hausnarketa-jardunaldia” antolatu zuen, eta BMEren

egoitzan egin zen (jardunaldiaren bideoa (3 h), hitzaldien laburpen-dokumentua). Bertaratutakoen artean DMD-DHEko bi bazkide izan ziren.

I. Jardunaldi horrek oihartzuna izan zuen hedabide batzuetan, eta EBEko presidente Itxaso Bengoetxeak ekitaldian aurkeztu zuen Euskadiko 2024ko Eutanasia Txostenari buruzko informazioa ere eman zuten: Irekia, elDiario.es, Berria.

- 2025ean, Euskadiko EBEk hiru aldiz berritu zituen bere kideak, gehienak postuaren legezko indarraldia amaitu zelako, Osasun Sailaren aginduen bidez: 2025/03/21eko Agindua, 2025/03/31ko EHAAn argitaratua; 2025/06/10eko Agindua, 2025/06/23ko EHAAn argitaratua; eta 2025/10/14ko Agindua, 2025/10/22ko EHAAn argitaratua.
- Ekainaren amaieran, Eusko Jaurlaritzak 2024an abian jarritako Euskadiko Osasun Itunaren Mahaiak Euskadiko osasun-sistema garatzeko 24 ildo estrategikoei buruzko adostasun-dokumentua onartu zuen (gaztelania, euskara). 8. lerro estrategikoak ("Bizitzaren amaierako zainketak") DMD-DHEk askotan aldarrikatzen dituen helburu eta ekintza batzuk jasotzen ditu, DMD-DHE Bizkaia elkartetik gonbidatutako bazkide baten partaidetzari esker.
- Ekainaren hasieran, hedabideek eta sare sozialek Gurutzetako ospitaleko pediatriako zainketa aringarrietako mediku baten protestaren berri eman zuten, laguntza horretan lan-baldintza eskasak eta bereziki 24/7 pediatriako zaintza falta salatuz. Albiste horrek oihartzuna izan zuen Estatu osoan, eta erreakzioa eragin zuen zainketa aringarrietako erakunde eta elkarteetan (ez pediatrikoetan bakarrik); besteak beste, Arinduz Euskadiko Zainketa Aringarrien Elkartean. Baliabide falta salatu zen, baita zainketa aringarriei buruzko lege nazional espezifiko baten beharra ere, eta laguntza hori espezialitate mediko gisa hartzea, beste aldarrikapen batzuen artean. Arinduzek DMD-DHEren babesa eskatu zuen antolatu zituzten hainbat bilera eta ekitalditan. DMD-DHE ados dago zainketa aringarrien estaldura oro har hobetzeko beharrarekin, eta erabaki zuen erakunde horiek egiten zituzten adierazpenekin bat egitea, baina ez aktiboki parte hartzea aldarrikapen-ekitaldien antolaketan, baliabide faltagatik, eta laguntza hori jada asko defendatzen dutelako profesional, elkarte eta erakunde garrantzitsuek, hala nola Arinduzek berak edo Espainiako Zainketa Aringarrien Elkarteak (SECPAL).
- Aipatzekoak dira, halaber, bizitzaren amaierarekin lotutako alderdiak barnean hartzen zituzten alderdi politikoen ekimen batzuk, batzuk DMD-DHEk aldarrikatuak.
  - Otsailaren 20an, Eusko Legebiltzarreko Osoko Bilkuran, EH Bilduk 2024ko urriaren 18an aurkeztutako lege-proposamena eztabaidatu zen, Osasun Sailari eskatuz Heriotza Duinaren Behatokia martxan jartzeko. EH Bilduren proposamena baztertu egin zen, eta, haren ordez, EAJ eta PSE taldeek aurkeztutako osoko zuzenketa bat onartu zen, zeinean Osasun Sailari eskatzen baitzaio "... *Euskadiko osasun-datuetatik abiatuta, osasun-emaitzen behatoki bat sortzea, helburuen artean heriotza duinarekin zerikusia dutenak biltzea izango duena*" (hitzaldien bideoak —"Hizlariak" fitxa—). DMD-DHEko bi bazkide gonbidatu gisa izan ziren.
  - Irailaren 25ean Eusko Legebiltzarreko Osoko Bilkuran mozio bat eztabaidatu zen, EH Bildu talde parlamentarioak pediatriako zainketa aringarrietako 24/7 arretari buruz aurkeztutako aurreko interpelazio baten ondorioz. Mozio horretan, Euskadin Heriotza Duinaren Behatokia martxan jartzeko eskaera berri bat sartu zen. Mozioa atzera bota zuten, eta, haren ordez, EAJ eta PSE taldeek osoko zuzenketa onartu zuten, Behatokiaren aipamenik egiten ez zuena. DMD-DHEko hiru bazkide gonbidatu gisa izan ziren.
  - Abenduan, Arabako Foru Aldundiak (AFA) eta Elkarrekin Podemos IU alderdiak akordioa lortu zuten Aldundiaren 2026ko aurrekontuak onartzeko. Akordioaren puntuetako batek, "Heriotza duinerako eskubidea" izenekoak, honako hau jasotzen du: "*... partida bat Arabako Foru Aldundiaren Adinekoentzako Baliabide eta Zerbitzuen Gida eguneratzeko, barne hartuta Eskubide soziosanitarioak eta bizitzaren amaierako aukerak eta haien hedapena Arabako Foru Aldundiaren eskumeneko zentro eta egoitzetan*", berariaz

aipatuz ABDa, zainketa aringarriak eta eutanasia. Hori zen DMD-DHEk 2024an Aldundiko talde politikoei helarazitako aldarrikapenetako bat.

- Abenduan, Osasun Sailak "Euskadiko Eutanasiari buruzko Informazio Sistema" aplikazio informatikoa aurkeztu zuen ofizialki, eta 2026ko urtarrilean jarriko da martxan. Azken urteotan garatu den aplikazio horri esker, eutanasia-eskaerak izapidetzen parte hartzen duten taldeen arteko koordinazioa eta trazabilitatea hobetu ahal izango dira, eta laguntzaren analisi estatistikoa eta balorazioa egin ahal izango dira. Alderdi horiek ere eskatu ditu DMD-DHEk aurreko urteetan.

Hauek dira Euskadin, 2025ean, heriotza duinarekin lotutako beste albiste batzuk (besteak beste):

- Urtarrilaren 11n, *Berria* egunkariak artikulu sentibera bat argitaratu zuen (euskaraz), "Agur, amatxu", eutanasia bidez hil zen pertsona baten agurrari buruz. Bazkide batek gaztelaniara itzuli zuen artikulua.
- Urtarrilaren 14ko El Correoko Zuzendariarentzako Gutunen atalean, garuneko tumore baten ondorioz hil zen pertsona baten senideek beren esperientzia txarra kontatu zuten, artatu zuten profesional sanitarioen aldetik informazio egokia garaiz jaso ez zuelako, pertsona horrek eutanasia-eskaera nahi zuen bezala egin zezan. Urtarrilaren 16an, familiak *Naiz* egunkarian ere artikulu bat argitaratu zuen, beste elkarte eta erakunde batzuen artean DMD-DHEri eskainitako laguntzagatik esker ona adieraziz.
- Bilbon egoitza duen Pikara Magazine aldizkari feministak "¿Has pensado ya cómo te quieres morir?" izeneko artikulua argitaratu zuen apirilean, ABDari buruz. Artikulua idatzi zuen kazetariak lan-harremana izan zuen AFDMDrekin eta gaiarekin sentsibilizatuta zegoen.



- Apirilaren 29an, Bilboko Udalak eta Bizkaiko Medikuen Elkargoak ABDa egiteko lantegien kanpaina ibiltari bat adostu zuten Bilboko zenbait osasun-zentrotan.
- Ekainean eta urrian, Osakidetzak ABDa hedatzeko kanpaina bat egin zuen Bilboko osasun-zentro batzuetan.
- Maiatzaren 11n, *Diario de Noticias de Gipuzkoa* egunkariak eutanasiari heldu ezin izan zion eta 26 urtez alzheimerra izan ondoren sedaziopean hil zen pertsona baten semearen testigantza argitaratu zuen: "¿Debo alegrarme de la muerte de mi madre?".
- Maiatzaren 29an, Matia Fundazioak antolatuta, Donostian, "Eutanasia Euskadin 2025: prozedurak, legeak eta dilema etikoak" gaiari buruz (Jardunaldiaren bideoa). Itxaso Bengoetxea EBEko presidenteak parte hartu zuen, eta eutanasia-prozesuetan parte hartu zuten profesionalek euren testigantza eman zuten. Bertan izan ziren DMD-DHEko hainbat bazkide, bai aurrez aurre, bai Internet bidez.
- Irailaren 8an, EiTBren "El otro lado de la mesa" programak, zeinak intereseko gai bati buruz ikuspuntu desberdinak dituzten bi pertsona elkartzen baititu eztabaidan aritzeko, eutanasiari buruzko programa bat eman zuen, eta ELAko gaixo baten senar Juanjo Uriak eta Itxaro Sorozabal pedagogoak parte hartu zuten. Juanjo Uriak hainbat elkarrizketatan adierazi du laguntza eskatzeko asmoa duela beharrezkotzat jotzen duenean. Aldiz, Itxaro Sorozabal laguntzaren kontrako ikuspegi katolikoaren ordezkaria da.

  DMD-DHEk gonbidapena jaso zuen programaren erredakziotik parte hartzeko. Batzarrean gonbidapenari uko egitea erabaki zen, eutanasiarako (heriotza duina) eskubideari buruzko eztabaidak gainditua egon behar duela eta une honetan arreta eskubide hori behar bezala aplikatzean eta oraindik aintzat hartu ez diren egoeretara zabaltzean jarri behar dela uste baita.

- Urriaren 27an, ETB2ko "Fotografías que dejaron huella" programak erreportaje bat emititu zuen Maribel Tellaetxeren kasua gogoratuz (bideoko lehen erreportajea da, programaren hasierako minutua igarota, 20. minutura arte, gutxi gorabehera).
  Oharra: baliteke EiTBren ETBOn plataformara harpidetu behar izatea ikusteko.
- Eroski taldeko Consumer aldizkariaren azaroko zenbakiak aurretiazko borondateeen dokumentuari buruzko artikulu bat argitaratu zuen.

Estatu-mailan, gertaerarik aipagarriena izan zen instantzia judizialetan Noeliaren (2024ko erdialdetik) eta Francèscen (apirilaren hasieratik) kasuek aurrera jarraitzea, biak Katalunian, zeinen eutanasia-eskaerak, Kataluniako EBEk onartuak, administrazioarekiko auzibidean errekurritu baitzituzten gurasoek. Pertsona horiek duintasunez hiltzeko eskubidea zutela berretsi zuten zenbait epai judizial izan arren, goragoko auzitegietara jotzeko aukera dagoenez eta onartutako eutanasia-eskaerak errekurritzeko hirugarrenen legitimazioari buruzko jurisprudentziarik ez dagoenez, eutanasia horiek etenda egon ziren hilabeteetan, eta horrek sufrimendu handia eragin zien pertsona horiei. 2025aren amaieran bi kasuek etenda jarraitzen zuten. Bi kasuok oihartzun handia izan zuten Euskadiko hedabideetan:

- "La joven cuya eutanasia quedó paralizada denuncia "coacciones" en su entorno".
- "La jueza da luz verde a la eutanasia de la joven de 24 años que paralizó su padre en Barcelona".
- "La justicia catalana avala que un padre pueda frenar la eutanasia de un hijo aunque no tengan relación".
- "Cuatro años de la Ley de Eutanasia: avances, controversias y luchas legales en torno a la muerte asistida".
- "Abogados Cristianos pide anular por "fraude" el aval a la eutanasia de la joven de Barcelona".
- "La joven cuyo padre frenó su eutanasia: «Quiero acabar dignamente de una vez»".
- "La justicia catalana avala que un padre pueda frenar la eutanasia de un hijo aunque no tengan relación".
- "La jueza da luz verde a la eutanasia de la joven de 24 años que paralizó su padre en Barcelona".
- Etab.

Kasu horiek barne-eztabaida eragin zuten DMD-DHEn eta AFDMDn, Elkarteak jarraitu beharreko estrategiarik egokienari buruz, Noeliari eta Francèsci ahal den neurrian laguntzeko eta etorkizunean egoera horiek berriro ez gertatzeko. Erabaki zen DMD Catalunyak lehendik egiten zituen jarduerak errespetatzea: hedabideetan esku hartzea errekurtso horiek gaitzesteko mezuarekin, Noeliari eta Francèsci laguntza eskaintzea, beharrezko lege-aldaketak aztertzen hastea eta Kataluniako alderdi politikoekin harremanetan jartzea haiek ezartzeko.

Estatu-mailako beste gertaera bat ekainaren 25ean 4. urteurrena bete zela LORE indarrean jarri zenetik. AFDMDk prentsaurrekoa eman zuen Bartzelonan eta prentsa-oharra ere zabaldu zuen lau urte horiek baloratuz (biak hemen ikus daitezke). Ekitaldi hori albiste izan zen Euskadiko zenbait hedabidetan (*El Correo* egunkariko artikuluaren argazkia). Aipatu dugu DMD-DHEk prentsa-ohar bat ere zabaldu zuela, Elkarteak Euskadiko LOREren bilakaerari eta egoerari buruz duen ikuspuntua azaltzeko.

Estatuari dagokionez, aipatzekoa da Osasun Ministerioak abenduan argitaratu zuen txostena, "Informe Anual 2024 de la Prestación de Ayuda para Morir", zeinak LORE Estatuan nola aplikatzen den azaltzen baitu.

2 Elkartearen jarduera 2025ean.

DMD-DHE Euskadiren jarduerak hiru jarduera-eremutan kokatzen dira: a) ekintza politikoa, b) hezkuntza- eta hedapen-ekintza eta 3) elkartegintza eta zabaltze-ekintza.

Esparru horietako bakoitzean, aurrera eramandako jardueren helburua Elkarteari buruzko ezagutza garatzea eta zabaltzea da, pertsona guztientzako heriotza duina lortzeko eta bizitzaren amaieran pertsona horiek dituzten eskubideen inguruko ezagutza ere (bereziki aurretiazko borondateeen dokumentuari (ABD) eta Eutanasiaren Legea (LORE)), eta eskubide horiek zaintzea, ebaluatzea eta zabaltzea.

2025a oparoa izan zen arlo politikoan eta instituzionalean. Dibulgazio-jarduerak maila ona izan zuen, eta hitzaldi-solasaldien kopurua murriztu egin zen aurreko urtearekin alderatuta, baina hedabideetako presentzia eta beste erakunde batzuekiko harremanak handitu egin ziren. Arreta pertsonalizatuko zerbitzuak ere aurreko urtean baino jarduera gutxiago izan zuen. Hala ere, urte gorabeheratsua izan zen Elkartearen barne-jardueran: presidenteak ustekabean dimititu zuen; AFDMDren Batzorde Exekutiboa berritu zen; barne-eztabaida izan zen Elkartearen funtzionamenduan beharrezkoak diren hobekuntzei buruz eta Noeliaren eta Francéscen kasuen inguruan jarraitu beharreko estrategiari buruz; DMD-DHEk behar berriak proposatu zituen Elkartearen informazio ekonomikoari buruz; Euskadiko elkarteak webgune espezifiko bat eskatu zuen; etab.

Hurrengo kapituluetan zehatz deskribatzen da 2025ean hiru eremu horietan izandako jarduera hori. Lan handiena Zuzendaritza Batzordeko kideek eta hiru lurraldeetako bazkide aktibistek egin zuten, eta bidezkoa da haien konpromisoa eta ahalegina eskertzea.

2.1 Ekintza politikoa eta instituzionala.

Kapitulu honetan, erakunde publikoekin, pribatuekin eta alderdi politikoekin lotutako jarduera biltzen da, bizitzaren amaieran pertsonen eskubideak arautzen dituzten legeak hobetzera, erakundeak horiek betetzeko eta zabaltzeko konpromisoa hartzera eta ez-betetzeak edo aplikatzeko arazoak salatzera bideratutakoa.

2024ko bigarren erdian, eta 2025ean zehar, Osasun Saileko, EBEko eta Aurretiazko Borondateen Euskal Erregistroko talde arduradunetan txandak egin ziren. DMD-DHEk talde berri horiekin bilerak egitea eskatu zuen, Elkartea eta haren helburuak ezagutarazteko, Euskadin bizitzaren amaieran dauden pertsonen eskubideak gauzatzeari buruz duten iritzia adierazteko, ikusitako arazoak azaltzeko eta hobekuntzak proposatzeko. Hona hemen jarduera horiek.

- Agerraldia Eusko Legebiltzarreko Osasun Batzordean.

  2024ko abenduan, eskaera bat bidali zen agerraldi horretarako. Ia urtebete geroago, 2025eko urriaren 18an, erantzunik jaso ez zenez, eskaera errepikatu zen.



Agerraldia, azkenean, urriaren 27an egin zen modu presentzialean (modu telematikoan egiteko aukera zegoen).

DMD-DHEren aldetik, DMD-DHEren Zuzendaritza Batzordeko hiru bazkidek parte hartu zuten eta Vox ez beste alderdi politiko guztiak egon ziren bertan.

EAJko eta EH Bilduko diputatuen hitzaldiak bereziki aberasgarriak izan ziren planteatutako kontuengatik eta trukatutako informazioagatik.

Hitzaldien bideoak eta haien testu-transkripzioa, baita agerraldi honen bestelako datuak ere, Eusko Legebiltzarraren webgunean kontsulta daitezke. Hemen kontsulta daiteke DMD-DHEk egindako aurkezpena (Powerpoint) kontsulta.

DMD-DHEk prentsa-ohar bat ere zabaldu zuen Euskadiko hainbat hedabidetara agerraldiaren berri emanez. Albisteak oihartzun handia izan zuen hainbat hedabidetan:

- *Naiz* egunkaria, "Piden campañas para dar a conocer el derecho a la eutanasia y más formación en Osakidetza".
- Cadena SER Vitoria, "Denuncian esperas de hasta un año para registrar el testamento vital en Euskadi: "No es de recibo"".
- *Diario de Noticias de Gipuzkoa*, "Eutanasiarako eskubidea ezagutarazteko kanpainak eta Osakidetzan formakuntza gehiago eskatu dituzte".
- *Berria* egunkaria, "Eutanasia eskubideari buruzko informazio eta ikastaro gehiago galdegin dizkiote Osakidetzari".
- *Diario Vasco*, "La asociación Derecho a Morir Dignamente pide «más recursos» para garantizar la eutanasia en Euskadi" (harpidetzapean).
- RTVE, Telenorte1 albistegian (4:00 eta 5:50 minutuen artean), eta Telenorte2 albistegian (2:30 minutuan hasten da, gutxi gorabehera).
- *Demócrata* egunkaria, "*Demanda de creación de un observatorio de muerte digna en el Parlamento Vasco*".
- Onda Vasca, "*Piden campañas para dar a conocer el derecho a la eutanasia y más formación en Osakidetza*".
  Oharra: Hedabide horrek elkarrizketa egin zion DMD-DHE Bizkaiako bazkide bati, baina ezin izan da webgunean aurkitu.
- Naiz Irratiak elkarrizketa egin zion agerraldian parte hartu zuen bazkideetako bati, Iñaki Alegríari (22 minutuko audioa): "*Eutanasiak aukera bat izan behar du, baina oraindik ezagutza falta da*".

- Aurretiazko Borondateen Euskal Erregistroarekin bilera.

  Urriaren 18an, DMD-DHEk bilera-eskaera bidali zuen Erregistrora, ABDa emateko eta erregistratzeko egoera baloratzeko, modalitate guztietan, eta Euskadin izapide horietarako gaur egun dauden gehiegizko hitzordu-epeak aztertzeko.

  Bilera azaroaren 20an egin zen, Erregistroaren Gasteizko egoitzan. DMD-DHEren Zuzendaritza Batzordeko hiru bazkide eta Erregistroaren arduradun berria bertaratu ziren, eta Elkartearen ikuspuntua jasotzen duen dokumentu bat eman zitzaion (gaztelania, euskara).

  Hemen kontsulta daiteke bileran hitz egindakoaren laburpena eta balorazioa.

- Osasun Sailarekin bilera.

  2024ko irailean jada eskatuta zegoen bilera hori. Otsailaren 6an eskaera errepikatu zen, Saileko talde arduradun berriari Elkartea aurkezteko eta Elkartearen ikuspegitik LORE aplikatzean eta ABDa Euskadin ematean izan daitezkeen zailtasunak azaltzeko eta hobekuntzak proposatzeko. Erantzunik jaso ez zenez, urriaren 18an berriro bidali zen eskaera hori.

  Azkenik, azaroaren 25ean egin zen bilera, Eusko Jaurlaritzaren Gasteizko egoitzan, eta DMD-DHEko Zuzendaritza Batzordeko lau bazkide, sailburuordea eta Saileko bi zuzendari bertaratu ziren.

  DMD-DHEk ohiko dibulgazio-dokumentazioa (Elkartea aurkezteko kuadriptikoa, ABDaren liburuxkak, "8 cosas que debes saber sobre la eutanasia" flyerra) eta lehen aipatutako Euskadiko LOREren aplikazio-egoeraren balorazio-dokumentua entregatu zituen.

Konpontzeke dauden arazoak ere zehaztu ziren; beste batzuetan ere aurkeztu dira, eta, Elkartearen iritziz, hor diraute LORE aplikatzean eta ABDak ematean. Hemen kontsulta daiteke aztertutakoaren laburpena.

Berritasun gisa, jakinarazi zen Elkartea ez zegoela ados Osakidetzaren sareko Bilboko Santa Marina ospitaleak urte hasieran argitaratutako "Guía para acompañar en los últimos días" gidaren edukiarekin, zenbait arrazoi zirela medio; besteak beste, ez zen aipatu ere egin eutanasiaren aukera, salbu eta lerro batean, hau esateko: "... sedazioa ez da eutanasiaren baliokidea".

Hau izan zen Sailaren erantzuna, eta hau DMD-DHEren ondorengo erantzuna.

- Euskadiko Eutanasiaren Berme eta Ebaluazio Batzordearekin bilera.

  Urriaren 18an, DMD-DHEk bilera bat eskatu zien presidente berriari eta ekainaren 10eko Aginduaren bidez izendatutako Euskadiko EBEko beste kide batzuei, harremanetan jartzeko eta Batzordeari helarazteko Elkartea kezkatzen zuten gaietako batzuk, LORE Euskadin aplikatzeari buruzkoak.

  Bilera abenduaren 4an egin zen Eusko Jaurlaritzaren Gasteizko egoitzan, eta DMD-DHEko Zuzendaritza Batzordeko 4 bazkide eta EBEko presidentea, presidenteordea eta idazkaria bertaratu ziren. Hemen kontsulta daiteke aztertutako gaien laburpena.

- Ekainaren 27an, Eusko Jaurlaritzak 2024ko irailean abian jarritako Euskadiko Osasun Itunaren Mahaiak Euskadiko osasun-sistema garatzeko 24 ildo estrategikoei buruzko adostasun-dokumentua onartu zuen (gaztelania, euskara). "Bizitzaren amaierako zainketak" izeneko 8. ildo estrategikoan, EH Bilduk gonbidatuta, DMD-DHE Bizkaiako bazkide batek parte hartu zuen. Haren ekarpenak, besteak beste, eutanasia bidez hiltzeko laguntza eskatzeko, ABDa emateko eta Euskadin bizi-amaieraren kalitatea ebaluatzeko eskubidea erabiltzen laguntzeko beharra kontuan hartzea ahalbidetu zuen.

- Azaroaren 24an, DMD-DHEk gonbidapen bat jaso zuen "Euskadiko Eutanasiari buruzko Informazio Sistemaren" aurkezpenera bertaratzeko, aurrez aurre edo bideokonferentzia bidez, beste erakunde sozial eta soziosanitario batzuekin batera. Sistema hori 2026ko urtarriletik martxan jartzea aurreikusten zen.

  Sistema horren bidez, eutanasia-eskaeren trazabilitatea hobetuko da, Historia Klinikoan erregistratzen direnetik, baita izapidetzean parte hartzen duten taldeen arteko koordinazioa eta laguntzaren azterketa estatistikoa eta balorazioa ere.

  Aurkezpena Eusko Jaurlaritzaren egoitzan egin zen. DMD-DHE Araba elkarteko bi bazkide bertaratu ziren, eta beste bi bazkidek bideokonferentzia bidez parte hartu zuten. Nahiz eta ez diren emaitzak baloratu eta zenbait xehetasun argitu (ordezko erregistro-bidea, mediku arduraduna (MR) aurkitzeko zailtasunak izanez gero, ABDa kontsultatzeko zailtasuna egoitzen eremuan, etab.), oro har aplikazioari buruzko inpresioa ona izan zen.

Bestalde, urtean zehar, DMD-DHEk herri-plataformen aldarrikapenak babesten jarraitu du Euskadiko osasun publikoaren defentsan, osasun-sistema publikoaren kalitateak pertsonen bizi-amaieraren kalitatean duen eragin nabarmenagatik. Otsailaren 1ean, plataforma horiek Bilbon, Donostian eta Gasteizen deitu zituzten manifestazioetan parte hartu zuen.

Halaber, beste elkarte batzuekin harremanetan jarri da, eta babesa eman die bizitzaren amaieran dauden pertsonen arretari lotutako beste elkarte horien aldarrikapenei (egoitzen eta zainketen arloko senideak eta langileak, aniztasun funtzionala duten pertsonak, etab.). Hiru lurraldeetako DMD-DHEko bazkideek elkarte horiek deitutako bilera eta ekitaldietan parte hartu dute, banaka, ez bakarrik haien aldarrikapenak babesten, baita bizitzaren amaieran dauden pertsonen eskubideak aldarrikapen horietan ere kontuan har daitezen lan egiten ere.

2.2 Hezkuntza- eta hedapen-ekintza.

Arlo honetan helburua da gizarteari informazioa ematea bizitzaren amaierako prozesuan dituen eskubideei buruz (hiltzeko laguntza eskatzeko eskubidea barne), heriotza duinari buruz Elkarteak duen filosofia zabaltzea, eta pertsona bakoitzak bizitzaren amaiera nola nahi duen aukeratzeari buruzko tabua haustea. Prestakuntza-jarduerak ere sartzen dira, herritar guztiei zuzendutakoak nahiz lanbide- eta hezkuntza-erakundeei dagozkionak.

Jarduerak anitzak dira; besteak beste, hitzaldi-solasaldiak antolatzea, mahai-inguruetan parte hartzea, topaketak antolatzea, zineforumak, prentsako, irratiko eta telebistako albistegietan agertzea, sare sozialetan parte hartzea eta informazio-liburuxkak zabaltzea. Ondoren, ekitaldia antolatzen zein parte hartzen, DMD-DHE presente egon zen 2025eko ekitaldi nagusiak bildu dira.

2.2.1 Hitzaldi-eztabaidak, konferentzak, solasaldiak, zineforumak, ikastaroak.

- Otsailaren 19an, ABDari buruzko hitzaldi-solasaldia Eibarko Untzaga gizarte-etxean, Debabarrena Esperientzia Eskolaren jardueren barruan.
- Otsailaren 20an, “Importancia del Documento de Voluntades Anticipadas” hitzaldi-solasaldia Legution (Araba), Arabako Foru Aldundiaren *+55 Ikastegiak* kultura-programaren barruan.
- Otsailaren 26an, hitzaldi-solasaldia Lasarteko Borobil elkarteak antolatuta: *“Nola hil nahi duzu? Hiltzen ikasi daiteke?*”.
- Martxoaren 12an eta 26an, ABDari buruzko hitzaldi-tailerra Igeldoko Itsas Aurre Kultur Etxean (Gipuzkoa), Igeldoko Jubilatuak elkarteak antolatuta.
- Martxoaren 12an eta 19an, ABDari buruzko hitzaldi-tailerra Alegiako Kultur Etxean (Gipuzkoa).
- Martxoaren 13an, *“Calidad de la muerte en Euskal Herria, Índice Txindoki”* hitzaldia, Donostiako Psikologia Fakultateko Esperientzia Geletan. Apirilaren 30ean, maiatzaren 13an, maiatzaren 14an eta maiatzaren 20an errepikatu zen. Helburua, proiektua aurkezteaz gain, informazioa biltzea izan zen, bertaratutakoen artean egindako inkestetan oinarrituta.
- Martxoaren 27an, “Ritos funerarios” hitzaldia Eibarko Armeria Eskolan, Ikasten elkartearen kultura-jardueren barruan.
- Maiatzaren 7an eta 13an, ABDari buruzko hitzaldi-tailerra, Errenteriako Orereta Laikoa elkarteak antolatuta.
- Maiatzaren 12an, “Importancia del Documento de Voluntades Anticipadas” hitzaldi-solasaldia Dulantziko Kultur Etxeko Hitzaldi Aretoan (Araba), Arabako Foru Aldundiaren *+55 Ikastegiak* kultura-programaren barruan.
- Maiatzaren 20an, hitzaldi-solasaldia Dulantziko Kultur Etxeko hitzaldi-aretoan (Araba), “Importancia del DVA” gaiaren inguruan, Arabako Foru Aldundiaren +55 Ikastegiak programaren barruan.
- Maiatzaren 22an, Osasun Publikoa Aurrera (OPA) osasun publikoaren aldeko elkarteak antolatutako hitzaldi-solasaldia, Gasteizko Aldabe Gizarte Etxean: “Derecho a una buena muerte”. 50 lagun inguru bertaratu ziren.





•Maiatzaren 22an eta 29an, ABDari buruzko hitzaldi-tailerra Debako Kultur Elkartearen egoitzan, Arbil jubilatu eta pentsionisten kolektiboak antolatuta (artikulua *Diario de Noticias de Gipuzkoa* egunkarian). Tailerra amaitu zenean 63 ABD egin ziren.

- Ekainaren 4an eta 18an, ABDari buruzko hitzaldi-tailerra Lasarten (Gipuzkoa). 65 bat lagun agertu ziren.
- Irailaren 19an, hitzaldi-solasaldia Gasteizko Herrandarren kaleko Bizan zentroan: "Testamento Vital – Documento de Voluntades Anticipadas". 30 lagun inguru bertaratu ziren, eta eztabaida bizia egon zen.
- Urriaren 29an, "Los derechos al final de la vida" hitzaldi-solasaldia Bilboko Aletu emakumeen elkartearen lokalean. 40 bat lagun agertu ziren.





- Urriaren 30ean, hitzaldi-solasaldia Donostiako Teila Fabrika komunitatearen eraikinean: "Hiltzeko eskubidea, libre heriotzeraino". Ekitaldi hau DMD-DHEk EHUko Psikologia Fakultatearekin batera Euskadin heriotzaren kalitatearen indize bat definitzeko ekimenaren barruan kokatzen da. 35 bat lagun agertu ziren.



- Azaroaren 12an eta 26an, "*Bizi-testamentua nola egin*" hitzaldi-tailerra, Teila Fabrika kolektiboaren eraikinean, Donostian. 42 bat lagun agertu ziren.
- Abenduaren 9an, hitzaldi-solasaldia Gasteizko San Martingo Bizan zentroan: "Derechos sanitarios al final de la vida". Mahai-inguru formatuan egin zen. Parte-hartze handiko 30 lagun inguru bertaratu ziren.

Oharra: DMD-DHE Gipuzkoak antolatu dituen hitzaldi-tailerrak bi egunetan egin dira, aste batean edo bitan banatuta. Lehenengo jardunaldian ABDari buruzko kontzeptu teoriko eta praktikoak azaldu dira, eta bigarrenean, bertaratutakoek lehenengo jardunaldian ikasitakoa praktikara eraman dute, ABDaren eredu bat betez (normalean elkarteak proposatutakoa), bertaratutako beste pertsona batzuen parte-hartzearekin, lekukoen funtzioa betez.

2.2.2 Hedabideetan agertzea (prentsan, irratian eta telebistan).

- Urtarrilaren 13an, DMD-DHE Gipuzkoako bazkide den Iñaki Alegríari elkarrizketa ETB 1eko "Egun On" albistegian, ABDari buruz (ez da aurkitu audioa).
- Martxoaren 4an, Gipuzkoako DMD-DHEko bazkide den Iñaki Olaizolari elkarrizketa Euskadi Irratiko Faktoria saioan Noeliaren kasuaz. Egun berean, gai berari buruz hitz egin zuen Radio Euskadin (audioak ez daude eskuragarri).
- Martxoaren 7an, Rafa Sali (Bizkaiko bazkidea) elkarrizketa *Deia* egunkarian, Bartzelonako Noelia gaztearen auzian TSJCk eman berri duen epaiari buruz.
- Martxoaren 13an, Rafa Sali elkarrizketa Onda Vascan, LORE onartu zeneko 4. urteurrenaren harira.
- Martxoaren 18an, Iñaki Alegríari (Gipuzkoako bazkidea) eta Rafa Sali (Bizkaiko bazkidea) elkarrizketak Onda Vascan Noeliaren kasuaz.
- Martxoaren 25ean, Iñaki Alegríari elkarrizketa *Diario de Noticias de Álava* egunkarian, Noeliaren kasuaz. Baita *Diario de Noticias de Gipuzkoa* eta *Deia* egunkarietan ere.
- Ekainaren 29an, Concha Castells DMD-DHEko presidente ohiari elkarrizketa SER irratiko *Hora 14 Euskadi* saioan, Radio Bilbaon, LOREren 4. urteurrenean elkartearen balorazioa egiteko.
- Irailaren 22an, *Diario de Noticias de Álava* egunkariak "*Cada vez más jóvenes dejan por escrito sus últimas voluntades*" artikulua argitaratu du, DMD-DHE Arabako koordinatzaile Cristina Valverderi egindako elkarrizketarekin, aste horretan DMD-DHEk Gasteizko Herrandarren Bizan-en emandako hitzaldi-solasaldiaren harira.
- Irailaren 22an, Oiartzun Irratia tokiko irratiak elkarrizketa bat egin zion Iñaki Olaizola DMD-DHE Gipuzkoako bazkideari, hiltzeko prozesuaz eta DMD-DHE elkartearen izateko arrazoiaz hitz egiteko.
- Irailaren 26an, Bizkaiko bi bazkidek (Begoña eta Julen) *El Salto* egunkarian "Sufrimendu erantsia" izeneko artikulua idatzi zuten (urriaren 17an *Naiz* egunkarian ere argitaratu zen). Artikulu horretan, Noeliaren kasuari buruz TSJCk emandako epaia kritikatzen dute, neska gazteak eskatu duen eutanasia jasotzeko eskubidea duela babestu arren, atea irekita uzten duelako hirugarrenek errekurritu ahal izan dezaten.
- Urriaren 3an, Radio Euskadiko *Distrito Euskadi* irratsaioak albiste bat eman zuen, Kataluniako Justizia Auzitegi Nagusiak Bartzelonako Noeliaren kasuari buruz eman berri zuen epaia zela eta. Albistea 5:45 minutuan hasten da, gutxi gorabehera, Noeliaren aita ordezkatzen duen abokatu kristauari egindako elkarrizketarekin, eta ondoren Concha Castells DMD-DHE Euskadiko presidente ohiari egindako elkarrizketa dator (albistearen audio esklusiboa; gutxi gorabeherako iraupena: 19 minutu).
- Urriaren 13an, Oiartzun Irratia tokiko irratiak elkarrizketa bat egin zion DMD-DHE Gipuzkoako bazkide Iñaki Olaizolari, heriotza sozialaren eta hileta-erritualen ideiaz eta haien eragin ekonomikoaz.
- Urriaren 17an, *Argia* egunkariak Jone Forcada, euskararen aldeko militante ezaguna eta DMD-DHE Gipuzkoako bazkidea, eutanasia bidez hil izanari buruzko artikulua argitaratu du. Azaroaren 15ean, *Gara* egunkariko Gaur8 gehigarriak, familiak bizitako kasuaren testigantza eta Joneren biografia ere jaso zituen.
- Urriaren 27an, Eusko Legebiltzarreko Osasun Batzordean DMD-DHEk egindako agerraldiarekin lotutako albisteak argitaratu zituzten hainbat hedabidek (ikus 2.1 atala).
- Azaroaren 2an, Euskadi Irratiko Taupaka saioan, Iñaki Olaizola (Gipuzkoako bazkidea) elkarrizketatuko dute heriotzaz eta doluaz, ikuspegi antropologikotik (baliteke EiTBko Guau plataforman erregistratu behar izatea).

- Azaroaren 3an, DMD-DHE Arabako koordinatzaile Cristina Valverderi elkarrizketa Onda Ceroko *Más de Uno Álava* programan, Eusko Legebiltzarreko Osasun Batzordean DMD-DHEk egin berri duen agerraldiaren eta elkarteak LOREri buruz egindako balorazioaren harira (4:45 minutuan hasten da, gutxi gorabehera).
- Azaroaren 11n, Naiz Irratiak Iñaki Alegría elkarrizketatu zuen, DMD-DHE Gipuzkoako bazkidea, DMD-DHEk urriaren 27an Eusko Legebiltzarreko Osasun Batzordean egindako agerraldiaren harira (22 minutu inguruko elkarrizketa, euskaraz).
- Azaroaren 17an, Oiartzun Irratiak elkarrizketa egin zien Arantza Garaialde eta Marta Barandiaran DMD-DHE Gipuzkoako bazkideei, elkartearen helburu eta lanari buruz.
- Abenduaren 15ean, Oiartzun Irratiak elkarrizketa egin zien Iñaki Olaizola eta Iñaki Alegría DMD-DHE Gipuzkoako bazkideei, LOREri eta Euskadiko heriotzaren kalitateari buruz.

2.2.3 Hezkuntza-arloko jarduerak.

- 2024an, DMD-DHE Gipuzkoako bazkide eta EHUko Psikologia Fakultateko irakasle batzuek, Donostian, ikerketa bat jarri zuten abian, hiltzeko prozesuaren kalitatearen indizea egiteko gaur egun, heriotza-prozesu hurbil eta berri bat bizi izan zuen publiko objektiboari zuzendutako inkesta-formulario batean jasotako informaziotik abiatuta.

  Dagoeneko aipatu dira, 2.2.1 atalean, maiatzean Psikologia Fakultateko Esperientzia Geletan proiektuari buruz eman ziren hitzaldiak.

  Horrez gain, maiatzaren 14an DMD-DHE Gipuzkoak, Ikasten elkartearen laguntzarekin, ikerketaren aurkezpena antolatu zuen Eibarko Kultur Etxeko areto nagusian eta publiko orokorraren artean inkesta zabaltzeko asmoz (ordura arte gehienbat unibertsitate-mailan zabaldu zen).

  Halaber, azaroaren 6an, DMD-DHEk Heriotza Duinaren Nazioarteko Eguna zela-eta Bilbon antolatu zuen Jardunaldiko hitzaldietako batean, Psikologia Fakultateko irakasleek ikerketaren behin-behineko emaitzak aurkeztu zituzten.

- Azaroaren 19an, DMD-DHE Arabako bazkideek “elkarteen topaketa” batean parte hartu zuten. Topaketa hori Batekin Agentziak antolatu zuen, Araban boluntariotza eta parte-hartze soziala sustatzeko, Arabako EHUko Gizarte Langintzako Fakultatearekin lankidetzan.



Helburua zen Gizarte Laneko ikasleei ezagutaraztea Araban herritarren bizitzaren hainbat alderdi hobetzeko lan egiten duten gizarte-erakundeen jarduera, boluntariotza egiteko eta haietan parte hartzeko aukera emanez.

DMD-DHE Araba bertan izan zen mahai batean, elkarteari, ABDari eta eutanasiari buruz zabaldu ohi dugun materiala azalduz eta ikasleen galderak eta jakin-mina artatuz. Interes handia erakutsi zuten ikasleek.

2.2.4 Lanbide-arloko jarduerak.

- Irailaren 12an, Donostiako AECCko teknikariei hitzaldi bat eman zitzaien gure elkarteari eta haren helburuei, ABDari eta LOREri buruz.
- Azaroan, DMD-DHEk gonbidapena jaso zuen, Osakidetzako Gorlizko Ospitaleko (Bizkaia) zuzendaritza medikoaren aldetik, zainketa aringarriei buruzko jardunaldi batean parte hartzeko. Azaroaren 27an egin zen, ospitalean bertan. DMD-DHE Bizkaiako bi bazkide izan ziren, eta haietako batek (Rafa Salek) ABDari buruzko eztabaidan parte hartu zuen.

2.2.5 Heriotza Duinaren Nazioarteko Eguna.

Azaroaren 6an, DMD-DHEk Heriotza Duinaren Nazioarteko Eguna ospatu zuen, Heriotza Duinaren Behatokiak izatearen beharra azaltzeko jardunaldi batekin. Horrela, zehatz-mehatz ezagutu ahal izango da pertsonen heriotza-prozesuaren kalitatea, zein faktorek eragiten dioten eta zein arazok zailtzen duten, eta, horrela, hiltzeko prozesuan irtenbideak edo hobekuntzak proposatu ahal izango dira. DMD-DHEren etengabeko aldarrikapena da, Euskadin oraindik ez baitago horrelako tresnarik.

Jardunaldia (ikusi egitaraua), Bilboko Burtsa Jauregian ospatu zen. Batez ere DMD-DHEko bazkideei zuzenduta egon arren, publiko orokorrari irekita egon zen. 100 lagun baino gehiago bertaratu ziren.



DMD-DHEko presidente berria den Rafa Salek eman zion hasiera ekitaldiari, eta Mabel Marijuán EHUko bioetikako irakasleak eman zion sarrera jardunaldiaren edukiari.

Ondoren, Nafarroako, Kataluniako eta Asturiasko Osasun Departamentuetako profesionalek esku hartu zuten, Autonomia Erkidego horietan aspalditik martxan dauden Heriotza Duinaren hiru Behatokietako arduradunak, hurrenez hurren, beren esperientziaren eta aurkikuntzen berri eman zezaten. Jarraian, haien hitzaldiekin batera aurkeztutako dokumentazioa kontsulta daiteke:

- Nafarroako Heriotza Duinaren Behatokiaren txostena.
- Kataluniako Heriotza Duinaren Behatokiaren txostena.
- Asturiasko Heriotza Duinaren Behatokiaren txostena.

Euskadin hiltzearen kalitateari dagokionez, EHUko Donostiako Psikologia Fakultateko irakasleak DMD-DHE Gipuzkoako bazkideekin lankidetzan egiten ari diren lana ere aurkeztu zen, kalitate horren adierazle kuantitatibo bat definitzeko, populazio-inkesten bidez lortutako faktore batzuk oinarri hartuta (Txindoki proiektua).



- Euskadin heriotzaren kalitatearen adierazle bati buruzko hitzaldia.

AFDMDko presidenteorde Fernando Marínek itxi zuen jardunaldia, eta elkarte federalaren 40. urteurrena, egindako lorpenak eta egiteko dauden erronkak ekarri zituen gogora.

Behatokien Jardunaldiaren osagarri gisa, egun berean, goizean, bazkide aktibistei soilik zuzendutako bi tailer egin ziren, bata Arreta Pertsonalizatuari buruzkoa, Fernando Marínen eskutik, eta bestea LORE eta osasun mentalari buruzkoa, Euskadiko EBEko bi psikiatrek emana.

Jardunaldiari buruzko xehetasun gehiago AFDMDren webgunean kontsulta daitezke, ekitaldiaren berri jaso baitzuen.

2.2.6 Sare sozialetan eta *online* hedabideetan agertzea.

AFDMDren berezko kanalez gain (ikusi https://derechoamorir.org), DMD-DHE Euskadik bere kanalak ere baditu, non heriotzari eta heriotza duinari buruzko albiste garrantzitsuak zabaltzen eta komentatzen diren, baita dibulgazio-materiala ere.

- Bluesky (@dmd-dhe-euskadi.bsky.social).
- X (lehengo Twitter). 2024ko amaieratik, DMD-DHE ez dago X-n.
- YouTube. Bizkaiko DMDko bazkide baten kanal pertsonala, eutanasiari eta beste gai batzuei buruzko gogoetak biltzen dituena.
- WhatsApp. Hiru lurraldeetan WhatsApp taldeak erabiltzen dira, albisteak zabaltzeko, baita talde bakoitzaren eta Zuzendaritza Batzordearen barne-komunikaziorako ere.

2.2.7 Idatzizko eta ikus-entzunezko erakunde-materiala prestatu eta zabaltzea.

DMD-DHE Euskadik antolatutako ekitaldi guztietan, jendearen eskura jartzen da honako hauei buruzko dokumentazioa, gaztelaniaz eta euskaraz:

- Kuadriptikoa, gure elkarteari eta haren helburuei buruzko informazioa ematen duena, eta lankidetzan aritzera eta bazkide egitera animatzen duena, horretarako jarraibideak barne.
- ABDari buruzko informazio-liburuxka, zer den eta nola egin behar den azaltzen duena (gaztelania, euskara, 2025ean eguneratuak).
- Eutanasiari eta LOREri buruzko informazio-liburuxka.

DMD-DHEk ABDari buruz egiten dituen hitzaldi eta tailer praktikoetan (azken horiek bereziki Gipuzkoan), beti jakinarazten da ABDa dokumentu pertsonala dela eta gida gisa erabil daitezkeen hainbat eredu daudela (besteak beste, Osakidetzarena —gaztelania, euskara—, AFDMDk proposatzen duena, 2025ean eguneratua), baina beti aholkatzen da DMD-DHEk proposatzen duen eredua erabiltzea (euskara, gaztelaniaz, 2025ean eguneratuak).

AFDMDren aldizkaria badela eta AFDMDren webgunean eskuratzeko aukera dagoela ere jakinarazten da. Ekitaldi esanguratsu batzuetan aldizkariaren ale batzuk ere banatzen dira. Bilbon, Donostian eta Gasteizen, liburutegi publikoen eta gizarte-etxeen ardura duten udal-sailekin hitzarmenak egin dira, aldizkaria horietan publikoaren eskura egon dadin, interes orokorra baitu. 2025ean, bi zenbaki argitaratu ziren (93. zenbakia Bartzelonan epaitegietan jasotako bi eutanasia-kasuei buruzkoa, eta 94. zenbakia, duintasunez hiltzea zer den eta eskubide hori ukatzea zer den erakusten duten lekukotzekin).

2.2.8 Harremanak beste erakunde eta elkarte batzuekin.

Aipatu dira, Ekintza politikoa atalean, osasun publikoaren aldeko plataforma herritarrekin eta eremu soziosanitarioko herritarren elkarteekin ezarritako kontaktuak. DMD-DHEk garatutako ekitaldiak antolatu dituzten elkarte eta erakunde ezberdinek ere, hitzaldi-solasaldien bidezko difusioaren atalean parte hartuko dute. Hezkuntza-arloko jardueren atalean, Donostiako Psikologia Fakultatearekiko lankidetza edo Gasteizko Gizarte Langintzako Fakultatearekiko harremana. Lanbide-arloko jardueren atalean, Donostiako AECCrekiko lankidetza. Izan ere, Donostiako AECCren lokaletan, gainera, DMD-DHEren Ohiko Batzarra egin zen 2025ean, eta Gorlizko Ospitaleak antolatutako jardunaldian parte hartu zen.

Hauekin batera, beste kontaktu eta kolaborazio batzuk ere aipa daitezke:

- Euskal Kazetarien Elkarteak (Kazetariak), Bizkaiko Medikuen Elkargoarekin (CMB) eta Psikologoen Elkargoarekin batera, “La muerte, el último viaje” mahai-ingurua antolatu zuen, apirilaren 3an, CMBren egoitzan. DMD-DHEk bertaratzeko gonbidapena jaso zuen, baina

ez zen posible izan beste ekitaldi batekin bat egin zuelako eta, gainera, ekitaldia zainketa aringarrietan zentratuta zegoelako, zeinak, bizitzaren amaieran alderdi garrantzitsua izan arren, ez baitira DMD-DHEren lehentasunezko helburua (baizik eta pertsonaren autonomia).


- Maiatzaren 13an eta 14an, Gasteizko Europa Biltzar Jauregian, estatu-mailako ADeNfermero Elkartearen (doitasunezko zainketa aurreratuetan oinarritutako irabazi-asmorik gabeko erizainen elkartea) V. Kongresua egin zen, nahiz eta Osakidetzako zenbait kidek parte hartu zuten ekitaldia antolatzen Gasteizen. Elkarte horrek DMD-DHE gonbidatu zuen, kongresu horren barruan beste elkarte batzuekin batera lan kolaboratiboko tailer batean parte hartzera. DMD-DHE Arabako bi bazkidek parte hartu zuten eta elkartearen lana eta helburuak aurkeztu zituzten. Harrera ona izan zuen.
- Maiatzean, Hirugarren Sektore Sozialaren Euskal Behatokiaren (https://3seuskadi.eus/) gonbidapena jaso zen, Euskadiko Hirugarren Sektore Sozialaren 2024ko Liburu Zuriaren aurkezpenera joateko. 2025eko maiatzaren 28an egin zen aurkezpena.
- Ekainaren hasieran, Arabako osasun-arloko eta arlo soziosanitarioko pertsona talde batek topaketa bat antolatu zuen Gasteizen, eutanasia-kasu bat azaltzeko. Bideo bat proiektatu zen, eutanasia eskatu zuen pertsonaren testigantza, arrazoiak eta prozesua jasotzen zituena. Hori guztia hiltzeko laguntza ematea beren gain hartu zuten medikuak eta erizainak aurkeztu zuten. Topaketan medikuak, erizainak, hildako pertsonaren familia eta DMD-DHEko gonbidatuak (Arabako bi bazkide eta Bizkaiko bi) egon ziren.
- Uztailaren amaieran, DMD-DHE elkarte gisa sartu zen nazioarteko hainbat GKE humanitariok bultzatutako “Manifiesto urgente por Gaza” manifestuan. Gainera, hiru lurraldeetan, maila indibidualeko bazkideek Gazako genozidioa gelditzea eskatzeko aldarrikapenak antolatu edo aldarrikapenetan parte hartu dute.
- Irailean, Eusko Jaurlaritzak ematen duen Giza Eskubideen René Cassin 2025 sarirako hautagaitzak bermatzeko eskaerak jaso zituen DMD-DHEk. Reporteros sin Fronteras eta Francesca Albanese izan ziren hautagaitzak, eta, azkenean, Albaneseri eman zitzaion saria. Elkarte gisa biak bermatu ziren.
- Urrian, Euskal Kazetarien Elkarteak (Kazetariak) DMD-DHE gonbidatu zuen bere aldizkari digitalean parte hartzera, gaurkotasuneko gaien inguruko artikuluak argitaratuz. Bizkaiko bazkide batek hainbat artikulu argitaratu ditu.
- Urrian, DMD-DHE Araba harremanetan jarri zen Arabako Gizarte Langintzako Elkargo Ofizialarekin eta Gizarte Laguntzaileekin, bilera bat eskatzeko, Arabako gizarte-langileek ABDari buruzko informazioa zabaltzen lagundu eta informazio hori egiten eta izapidetzen lagun dezaten, beste erkidego batzuetan egiten den bezala. Abenduaren 19an, bilera hori Elkargoko Zuzendaritza Batzordeko kide batekin egin zen. Pertsona horrek proposamenak jaso zituen, eta, harekin, taldeari prestakuntza-saio bat egitea erabaki zen, Gasteizko egoitzan, 2026ko otsailaren 23an.

2.3 Elkartegintza.


Jarduera honetan kokatzen dira barne-komunikazioa eta bazkideen parte-hartzea sustatzea, herritarrak elkartera hurbiltzen animatzea eta Elkartearen kudeaketa eraginkorra, demokratikoa eta gardena egitea.

2.3.1 Bazkideen bilakaera.

	bazkide-kopurua **2024/12/31**	**2025** altak	**2025** bajak	bazkide-kopurua **2025/12/31**
ARABA	109	15	3	**121**
BIZKAIA	228	21	11	**238**
GIPUZKOA	151	15	10	**156**
GUZTIRA	488	51	24	**515**



Bazkideen urteko serie historikoa



Alta eta bajen urteko serie historikoa

